



## Santa Klararen komentua (Balmaseda)

Balmasedako tenplu zaharren antolaketa hauxe da: hiru tarteko nabea, gurutzadura eta sakontasun txikiko kapera nagusi angeluzuzena. Fabrika luzituriko harlanduz eraikita dago, izkinetan hareharrizko silarriak ditu, kofaduretan uztarriak, moldurak eta aurrealdeko pantaila.

Tartek toskaniar antolaketako gurutze-formako pilastrek zehazten dituzte, altuan molduraturiko erlaitz baten bitartez lotuta. Kanoi-ganga sortzen dute; lunetak ganga horretan sartzen dira eta ganga, gainera, triangeludun motibo geologikoak dituzten igeltsutegiekin apainduta dago. Estaltzeko sistema hori kapera nagusian eta gurutzadurako beso txikietan ere ageri da. Erdiko tartean petxinen gaineko kupula batekin estalita dago, eta horrek argiari sartzen uzten dion linterna ortogonal dauka. Kapera nagusirantz ahokaturiko arkua eta horren ganga pintaturik daude, lehenengoa pitxerrekina eta geometriekin, eta kanoia landare apaindurarekin.

Koruak protagonismo handia dauka, eragina baitu azken tarte osoan eta bigarren tartearen zati batean; horren alde batetik luzatzen da, organoa hartzeko. Azpian jaunartzeko lekua dago, nabearrekin sareta baten bitartez komunikatuta.

Eguzkiaren argia burudun kofaduren bitartez iristen da; horiek gurutzadurako bi muturretan irekita daude, baita nabearren lehenengo tartean ere, Ebanjelioaren aldetik. Koruaren gainean leiho moderno arkimardulatu dago. Azken emaitza ez da oso eraginkorra, eta tenplu nahiko iluna itxuratzen du.

Kanpoaldetik, bolumenen eraketa zuzena da; kupulak gurutzatzean, nabe nagusiko bukearen eta transeptu nabearren artean, prisma kubikoa sortzen da.

Kaletik bi kontrahormak mugaturiko bide batetik sartu behar da. Sarbide hori bi erregistrotan antolatuta dago: behealdekoan, puntu erdiko arkuaren sarrera dago, kaxadun aurrealdea duten gurutze-formako pilastren artean (oholtza leuna uzten duten pilastra toskaniarrak). Sarbideko klabearen gainean, plaka bat dago eta bertan hauxe jartzen du: "JOAN DE LA PIEDRA HIJO LEXITIMO D/JOAN DE LA PIEDRA Y DE MADALENA D/BURGOS SU MUGER MANDO FUN/DAR ESTE CONVENTO Y LE DEXO DE RREN/TA TRES MIL QUINIENTOS DUCADOS/ACABOSE ESTA OBRA AÑO DE 1675". Goyaldeko erregistroaren erdian, puntu erdiko horma-hobia dago, eta bertan Santa Klararen irudia, alboetan bi armari dituela.


Kanpai-horman harlanduz egokituriko elementu liraina dago; puntu erdiko kofaduren bi gorputz ditu, frontoitxo triangeluar baten bidez errematurik, erdian harrizko gurutzea jartzeko apurturiko frontoiarekin. Mentsuletan boladun pinakulu triangeluarrak daude.



Balmasedako Santa Klararen komentuko tenplua Bizkaian mende amaieran zegoen inertiako klasizismoaren barrukoa da. Nabe bakarreko eliza da; gurutzadura oinplanoan dago eta korua nahiz jaunartzeko lekua oinetan. Espazioaren banaketa horrek protagonismo handia izan zuen Jaurerriko komentu arkitekturan (Gordexola, Elorrio eta Ajangiz); eraikin funtzionala da, eta gaitasun handia dauka emakume askorik gabeko komunitate baten beharrezkoak betetzeko; gainera, paralelismo handiak ditu bertatik hurbil dagoen Gordexolako Santa Isabel komentuari.

Enkarterrietako herri horretara, bestalde, frantziskotar mojak Balmasedako herritar baten nahiaren eraginez iritsi ziren: Juan de la Piedra Berastegui, Panama de Indias hirian hildakoa, 1643an. Testamentuan mila dukateko legatua utzi zuen, eta errenta hori klaratar komentua sortzeko eta mantentzeko erabili behar zen. Zenbait gorabeheraren ondoren, 1662an Marcos de la Piedra harginak eta Juan de Berastegui zurginak esan zuten mojak komentuan instalatu zitezkeela eta elizako fabrika egiten ari zela. Hori 1975ean amaitu zen antza denez, sarrerako atearren gaineko plakan idatzitakoaren arabera. Eraikinaren oraingo itxura 1687an hartu zen, une horretan Kantabriako Francisco Martinez de Arze jauna kanpai-horma egiten ari baitzen.

**Testua:** Ana Isabel Leis Alava.



### Santa Klararen komentua

Balmaseda. (Campa de las Monjas, 1. Hiriko zabalunean dago, hirigunetik kanpo, Enkarterriak etorbidearen hasieran).

### Bisitak egiteko ordutegia:

Komentuaren alde hotel eta jatetxe bihurtuta dago eta horretara bisita daitezke.

### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Balmaseda)

- San Severino eliza. (San Severino plaza, 1).
- Udaletxea. (San Severino plaza).
- Urrutia jauregia. (Correría, 36).
- Muzako zubia. (San Lorenzo auzoa).
- Buniel edo Horcasitas jauregia. (Martín Mendía, 14).
- "La Encartada" txapel fabrika. (El Peñueco auzoa).
- Hiriko alde zaharra.